

Fito Rodriguez-Bornaetxea
E.H.U.ko irakaslea

"horrela, dardarka, atearen atzean geratu ginen, gure pentsamenduak murmuratzera ausartu gabe, nahiz eta komunikaezinaren etsipena sentitu, hori baita elkarrekin egotera behartuak daudenei ezarri ahal zaien madarikaziorik gogorrena". Eta geure beldurrak ezin komunikatzera behartuak, batuesinak inposatzen duen beharragatik beragatik. Bakoitzak bestearen bihotz taupadak aditsen zituen eta es zen ausartzen hau esatera: "Neure bihotza hirearekin batera zihoak-".

Melmoth the wander. 1820

Hitzaurrea

Komunikaziotxiki batean es da oso normala hitzaurre batez hastea. Halaz ere, gure komunikatzeko tresna garrantzitsuenetako bat (gure hizkuntza, hain zuzen) hainbeste urtetan debekatua izan ondoren, iker-lanetan ere oinarritik hasi beharra dago.

J.M. Torrealdaiak dioenez: "Azken urteotan egiazki egoera berrian al gaude ala lehenago egoera berberak jarraitzen du orain ere, hori bai, aldien izpirituak gomendatsen dituen egokipenez?" (1)

Nik ez dut horrelako galderarik erantzungo. Bakoitzak berea ipin dezala baina lantxo honetan gure hizkuntz-egoerari buruz ditugun galderak ez dira argituko, ordenatuko baizik, asmos behintzat. Torrealdairen aipatutako ikerketan euskararen zapalkuntzaren historia periodo zehatz batean aztertzen da. Honetas beste iturbururik (2)

badaugu baina garai desberdinen arteko konparaketarik es dugu egingo ("oraintxe euskara lehenago baino okerrago dago!.. eta abar: eta abar...")

Euskararen zapalkuntza argi eta garbia izan da, nahitaz he-
men ditugu ondorioak. Ene hitzaurre eta lantxoaren gakoa ondorio horietan datza.

Guk ditugun ardatzetan, lehenago esan dudanez, oinarritik hasi behar dugu gure hizkuntzak duen egoera aztertuz. Gero gerokoak.

Halaz eta guztiz ere hizkuntza bere baitan ez dugu aztertuko, hori linguistikari bait dagokio. Hizkuntzaren erabilkera hezkuntzaren arloan isango da gure eremua. Eta hona gure helburua: eremu honetan zer problema moeta planteatsen zaizkigun eta nola sailka ditzaiegun jakin araztea.

Eskola, Hizkuntza eta Estadoaren normalizazioa

Mende honetako lehenengo urteek fenomeno berri bati hasiera ematen diote: Zientzi eta produkzioaren arteko lotura. Ingalaterrako makinismoan orduantze arte aparte ibilitako bi elementu horiek batu-tzen dira. Batuketa horien poderioz bizitzako egitura osoa aldatse-ra doa (merkatuaren arauak, produkzio harremanak, espazioaren bana-keta eta abar). Hori gertatu baino lehenago zientziak bere bidea zuen eta produkzio munduak berea (3). Italian edo Frantzia zientzien elkarte batzuk baziren eta zientifikoek beren aurkikuntzak saltzea situzten (4) noski, baina arlo bakoitza aldagai aske zen. Mende honetatik produkzioa aldagai aske dateke zientziaren menpeko aldagai bihurtuz.

Fenomeno hau denboraren jarioaz korapilatuz doa. Alemanian produkzio eta zientziaren arteko lotura irakaskuntza eta botere poli-tikoarekin batutzen da. Mexiko-ko Unibertsitatean asko sakondu dute momento honetan gai honi buruz. Adierazitako batura horien medioz Alemaniako igoera nabarmena da orduko Europan, Ingalaterrako gainbe-hera ere, honi esker uler daiteke.

Alemaniko modelo: zientzia gehi irakaskuntza, gehi botere politikoa berdin produkzioa, araua bihurtuko da estatu guztietako kapitalaren lasterketan.

Ikuspegi honetatik gure mendeen hasten diren erlazio berri batzuk, esaten dugun eskola, hizkuntza eta normalizazioaren kontzep-toak badute ulertzerik.

Sistema berriak obligaziozko eskola behar duenean indibiduoaren sailkapenari hasiera ematen dio. Botereak gizarte osoa sailkatzen du (6). Antolaketa berri honetan espezio desberdinak agertzen dira. Espazio bakoitzak (eskola, armada, sendagintza eta abar...) bere diskurtsoa (arauen sistema) eta bere disziplina (zientzia partiku-larra) ditu (7).

Guri dagokiguna zera da, eskolaren espazioa, bere diskurtsoa (eskolaz esaten dena) eta disziplina (pedagogia, hezkuntz zientziak...): Horretan arituko gara.

Eskolaren normalizazioarekin batera (eskola espazio bezala ulerturik) metodo zientifikoaren erabilkera dator. Ikaslea klasifikatu beharra dago. Irakaskuntzak monografiaren kategoriak erabiltzen ditu (8). Momentu hartan Binet eta Simon-en ikerketak azaltzen dira hezkuntza arrazionalizatzeko asmoz.

Psikometria delakoa erabiliz erantsuna eman nahi izan sio- ten beren garaiko beharrari, hau da, eskolaren normalizaziorako sailkapenaren beharrari, baina, hots!, beren objetibotasunaren oinarrria non kokatzen dute? Hizkuntzaren erabilkeran, hain zuzen.

"Nahiz eta bere ikaaketak gaizki eraman, ongi erredaktatsen duen neska-mutil kokorra ez dela behin ere atzeratua izango esan dezakegu" (9) Binet-ek zioskun.

Horrela bada eta Psikometriaren oinarri hori oso aztertuta dagoenez (10) eskolaren espazioan hizkuntza dela medio indibiduoa klasifikatu egin dela esan dezakegu.

Hezkuntza, espazioen sarea

Hezkuntza mende haeratik orain artekoan, gero eta gehiago sailkatu da. Pedagogia Herbart-en eskutik etorri zitzaigun, eta berak mailakatu eta sailkatu zituen hezkuntzaren formak eta gdukiak. Hezkuntzaren barruan espezializateak hain handiak direnez gaurko esagu- tzek loturik gabeko jakintza ezberdinak dirudite (11). Espazio-sa- re baten antzera antolaturik, gaurko hezkuntzan aurkitzen diren edu- kiek ez dute zer ikusirik batzuek besteekin. Jakintza beresi bakoi- tzak (disziplina) egiten duen lehenengo gauza bere mugak ezartzea izan ohi da.

Lehenago esan dudanez hezkuntza moeta hau (gaur egun sofri- tzen dena) bereiztailetzat azaltzen zaigu. Normalizazioaren bila ibiltzerakoan normalizazio-espazio makina bati ematen dio hasera: E- rreformatorioei, eskola bereziet (gorren, itsuen eta subnormalen eskolak adibidez...) errotzei, hizkuntz akatsak (dislexiak, disar- triak, afasiak...) dituen edonori, karakterialet (autismoa eta abar) Bereziketa horiek egiteko erabiltzen den era zera da, eskolaren es- pazioan komunikatzeko dituzten ahalmenen azterketa eta hauen artean eskolako hizkuntzaren baremazioa, hain zuzenera. Eskolako hizkuntza horrek bi esanahi ditu; alde batetik eskola-espazioaren diskurtsoa (hitz jarria) eta bestalde eskolan erabiltzen den hizkera.

Hezkuntzaren diskurtsoaz problemarik duenik bada (biolentzia, ezeztatze jarrerak, inibizioa...) nahiz ikasle, nahiz irakasle izan, espazio berezi batera bidaliko dute (erreformatorelara edota errotxe batera) baina beti eskola normala deritzanaren espiziotik kanpo.

Hezkuntza aurrera eramateko erabiltzen den hizkuntzan akatsak agertzen badira (psikometriak sailkatzen duena), problemarik duen indibidua edo egitura mailaktu atzean geratzen da edo egitura berezi batera atzeriratzen da (eskola bereziatara).

Binet eta Simon hasi ziren jendea klasifikatzen Pariseko Komunatik pasa ondoren. Boterearen gogoetan, diferentziaren diskurtsoaren beldurra existitzen omen zen oraindik. Frantziak behar zuen Estatutu moeta, ordenatu beharra zegoen. Orduan, Binet eta Simon agertzen dira ordenatzeko, lehenago esan dudanez, hizkuntzaren menpekotasunaren neurrian, inteligentzia edo beste baloreekin zuzen-zuzen erlasionatzeko asmoz (12).

Emaitza oso aproposa izan zen, alde batetik periferiako azuetan bizitzen zirenek hirierdikoek baino emaitza pobreakoak lortzen zituzten eta bestalde Frantziako kolonietakoek ere (kontinentalak nahiz itsasoz bestealdekoak) ere maila baxuagoa zutelako. Horrela klase burgesaren estatuak bere irakaskuntza (13) antolatu zuten.

Hala eta guztiz beste esaugarri bat ere azpimarra daiteke, hau da, hizkuntzetaz zer-nolako kontzeptuak zituzten garai hartakoek. Hauxe argitzeko interesgarri omen da Txepetxen azken liburua (14).

Chomsky baino lehenago ez dago hizkuntza kontzeptua giza mailan ulertzerik. Elebitasuna bera azalpen indibidualen bidez aztertzen zen. Bi plano ziren nagusi: Lengoiaren egitura logikoa eta bere zehazkizun indibiduala, besterik ez.

Orduan, berriro harira helduz, klasifikapen haren azterrenek eskolako hizkuntza (erabilkera indibidualatzat ulerturik) oinarri zutela esan dezakegu.

Gure gaurko egoera larria

Gu, aipatutako zientziaren semeak besterik ez gara, eta, kultura bezala hain bortxatuak izan garenez, gaurko egoera benetan larria dugu.

Psikometria deritzana une zehatz batean sortu zen Estatuaren normalizazioarako bidean diferentziak klasifikatzeko, eta hizkuntzan oinarrituz.

Gaur egun lehen aipatutako zapalkuntza test-en bidez berritzen da maila indibidual batean. Adibidez, "Escala de inteligencia de Weschler" (15) delako informazio-kapituluan horrelako galderak azaltzen dira: Zer kolore ditu zure aberriko ikurriak) edota historia-ko galderak eta abar... Hona hemen eskola-espazioaren diskurtsoaren barruan dagoenentz kohprobatzeko itemak. Norbaitek orrian ez dagoen erantzuna ematen badu balorik ez du, eta emaitza noski, ezekorra izango da.

Hiztegien kapituluarekin gauza bera gertatzen da. Hiskuntza zapaltzailea menperatzen ez duenak emaitza txarra lortzen du eta atzeratu bezala klasifikatzen da.

Berdin da sujetaok bere hizkuntza menperatsenbadu edota bere kulturetas datu mordo bat badauka, normalizazioaren eskalan gaiski egongo da beti bera diferentes baita (16). Honako kasuak ez dira hementxo soilik (17), eta maiz adierazten dute eskola-porrot deritzana interpretatzeko ez dela indibiduo baten frakaso bezala interpretatu behar, eskolaren frakaso bezala baizik.

Gaurko bida guratzea eta abiadura

Euskara zapaltzeko metodo posible guztiak nola erabili diren badakigu. Honek zer ondorio dakartzkigun eta okerrak suzutzeko zer-nokako bideak erabil litezkeen, hori da jakin behar duguna.

Dena dela argi eta garbi gelditu behar da problema ez dela praktikan bakarrik aurkitzen.

Orain arte erabilitako tresna teoriko guztiek bere genesis dute, eta hori aztertuz, zientziaren boterearen aldeko konpromisoa azpimarragarria da (18). Geuk tresna berdinak (zientzia berbera, esate baterako) erabiltzen baditugu, gure diferentziatik sortzen den problemari ez diogu intzenbiderik ematen, eta gainera Mo-Luhan-i parafraseatuz (19) boterea bera gero eta gehiago izango ginatekeela esan liteke.

Wz, zera, diferentziaren diskurtsotik abiatu behar den hizkuntza, erakitzeko dugu eta dauden atalean, hiru problemari behintzat erantzuna eman behar diegu, hona hemen:

A.- Hizkuntza eta pentsakera (20), alegia: ba al dago pentsakera, Binet, Simon eta besteek esaten diguten bezala, hizkuntzaren menpean?. Sapir - Whorf-en hipotesiaren azpitik desorrollatutako ikerketak gaur egun oso kritikatuak daude. Ez du ematen hizkuntzak soil-soilik pentsakera menperatzen duenik.

Chomski-ren eskutik "innatismoa" datorkigu hizkuntzak bere sistema duela eta pentsamendua berea esanez. Hasera batean itxaropentsua zen honako ekarpena baina hurrengo ikerketek praktikaesintzat hartu izan dute (21).

Piaget-ek lengoia eta pentsamendua eginkizunetatik abiatzen direla dio. Askotan, bere ustez, pentsamendua lengoia baino lehena go bilakatsen da.

Dena dela, Piaget-k ez du hizkuntza aztertzen ezagutza baizik eta sentzu honetan adierazmena ulertzen du sentzu zabal batean. Bere ikerketak hizkuntzari buruz oso taxonomikoak dira, deskribapenak besterik ez.

Binet eta Simon-ekin lan egin zuela (22) azpimarragarria da, hizkuntza, lehen aipatutako normalizazio kontzepto baten barruan kokatzen duela ikusteko. Pilar Palop-ek positibista hutsa dela diosku (23).

Gai hau abiapuntu bat da baina hala eta guztiz, gero eta korapilatsuago dago. 1980-eko British Psychological Society-ko Batzarrak horixe esan zigun (24) nahiz eta Vygostky-k (25) eman agian sistema ireki bat aurkitzeko eta bitarteko ikerketak kokatzeko bidea. Ikuspegi independente honek esaten duena zera da: Pentsamendua eta hizkuntza, bakoitza bere aldetik doa baina une konkretu batean itsatsi egiten dira eta salto kualitatiboaren antzerako gauza bat gertatzen da.

Beraz, ideia honetatik sistesi berri baten bila badago joaterik. Orain arteko hezkuntzaren zientifikohoriek, jaiintzak emandakoak behinik behin, probatzeko daude.

B.- Hizkuntza eta kultura.

Aurreko problema ia-ia esagutzaren teoriarik kokatzen bazen, orainoa ia-ia antropologiaren barnean kokatu beharko dugu.

Euskal kulturak bizitzeko erabili dituen erak bere aztarnetatik aztertu egin beharko ditugu. Irakaskuntzaren egituraren kanpo "weltanschung" zehatz bat transmititu egin da Euskal Herrian. Hori nola izan den posible jakitean datza, akaso, gure pedagogiaren etorkizunaren gakoa.

Heziketa ezformalari buruzko azterketaren premia dugu. Zentzu honetan bi laguntza teoriko da de: Foucault (26) eta Lotman (27).

D.- Elebitasunaren problema

Nahiz eta oso aztertua izan (28) ikusmira teorikoetan sakontzea behar-beharrezkoa dugu.

Txepetxen ekarpena (29) ene ustez oso egokiada erakusteko plano indibiduala eta gizartearena nola atxeki.

Espazio kontzeptuaren bidez badago problema hau eskola-espazioarekin erlazionatzerik eta zentzu berean kulturareta disziplina atzeritzerik.

Powcault-ek espazio sinbolikoa erabiltzen du baita Tartu-ko eskolakoek ere... Honek behardugun Hezkuntza oinarritzeko koherentsia ematen digu abiapuntuetatik.

Teoria eta praktikan bide lusea dugu geure hizkuntza eta kultura berriro eskuratu arte baina problemaei ez diegu uko egin behar.

Askotan gureproblema komunikazio eza dateke. Praktikan sartuta, oztopoz hertsirik goibeltza dakusagu etorkisuna. Beras, nik uste dut, beltza dugula baina honek ez du esan nahi informasiorik bildu behar ez dugunik ezta nahiz teorian, nahiz praktikan, informasione bera sailkatu behar ez dugunik, azken finean, komunikatu.

Azken eta gero, ekarpen guztiak premiasakoak dira eta Unibertsitate hori egiteko eraikibeharko genuke.

Hona hemen arazo horiei nik emandako sailkapena.

OHARRAK

- 1.- Torrealda J.M.: "Euskaren zapalkuntza" (1936-1939) Jakin 24 (bigarren aldia) Donostia 1982eko uzt-iraila (70 orrialdean)
- 2.- SIADECO: "Historia de la regresión del euskara. Areas castellanas." "Estudio socio-linguístico del Euskara" Bilbo. Euskaltzaindia 1979
 - Txillardegui, Euskal Herritik Erdal herrietara Zarauz 1977
 - Euskaltzaindia, Euskararen liburu zuria. Bilbo 1978
 - EHEk kaleratu dituen ia agiri guztiak ikuspegi honexetatik bideratzen dira oinarri enpiriko batean.
- 3.- Butterfield, H. Los orígenes de la ciencia moderna. Madrid, Taurus 1971
- 4.- Ikus, adibide gisa, Milaneko dukeri (Ludovico el Moro-ri) Leonardo da Vinci-k idatzitako karta (Klemm, K. Storia della tecnica Milan Feltrinelli 1966, 123-124 orrialdeetan).

- Zientzi-gizon gehienek bere jakintza saltzen zuten. Askotan gudu-
etan erabiltzen ohi ziren zientziaren eritetzeak edo, baita
ere, Europako gortetan plazerra emateko (artea edo bitrikeria
bezala).
- 5.- Cocho, Flavio. Ciencia y aprendizaje. Madrid, H. Blume, 1980 le-
henengo eta bigarren kapituluak.
- 6.- "Frantziak bere bete-beharren artean lehena eskolen eta armadaren
berriantolaketa kokatsen du". Gustave Baguer, artx. I.P.N.
113-1904.
- 7.- Foucault, M. eta beste batzuek Espacios de poder. Madrid. La Piqueta
1981
- 8.- Espacios de poder aipatutako Iburuaren barruan, bila Muel, F.
"La escuela obligatoria", artikulua 123-142 orrialdeetan.
- 9.- Binet, A. eta Simon, Th. Les enfants anormaux Paris. A.Càlin
1907
- 10.- Ikus, F. Muel-en aipatutako artikulua
- 11.- Boletín de "Asociación educativa". Madrid
- 12.- Ikus, F. Muel
- 13.- Bernstein, B. Langage et classes sociales. Paris. Les éditions de
Minit, 1975.
- 14.- Txepetx. El espacio bilingüe. Iruña. Eusko Ikaskuntza 1981. I-
kus lehenengo eta bigarren oharra.
- 15.- Yela, M. Interpretación clínica de la escala de inteligencia
de Weschler para adultos (WAIS). Madrid. TEA 1976.
Zentzu kritiko batean aspimarra daitake Pawlik, K. Diagnosia
del diagnóstico. Barcelona, Herder 1980.
- 16.- Kuriosoa da, behintzat, "Escuela nacional" batzuetan (Asteasun
adibidez), txit mutil koñkor atzeratua bezala klasifikatuta dau-
dela, eta halaz ere hiztegi eta baserriko kultura hain ongi
menperatzen dutela bertsoak ere hola ditzaketela.
- 17.- Beste kasu aipagarri bat ulertzeko kultura, hizkuntza eta hezkun-
tzen arteko harremanak EDUCAR aldizkarian dugu. Guzman, M.
"La educación como desarrollo de la cultura: experiencia en u-
na comunidad quechua de Bolivia". EDUCAR, Barcelona 1981-1982
122-137 orrtan.
- 18.- Foucault-en eskutik datozkiguten ikerketek hala daito behinik
behin, eta bereziki Microfísica del poder. Madrid, La Piqueta
1979

- 19.-"Modua mezua da" zioenean, McLuhan, M. EL aula sin muros. Barcelona. Laia 1974
- 20.- Gai hau oso ongi aztertua dago Cromer, R.F. artikuluan batean.
"El desarrollo del lenguaje y el conocimiento: La hipótesis cognoscitiva". Poss, E. Nuevas perspectivas en el desarrollo del niño. Madrid. Dundamentos, 1978. 277-364 orrialdeetan.
- 21.- "El optimismo inicial que tomó cuerpo a partir de la formulación por parte de Chomsky de una gramática transformacional generativa no se ha visto sostenido por el torrente de trabajo que provocó" J. Bruner.
"De la comunicación al lenguaje, una perspectiva psicológica". Infancia y aprendizaje, La adquisición del lenguaje. Madrid Pablo del Río. 1981. 158 orrialdeetan.
- 22.- Piaget, J. Autobiographie. Cahiers Vilfredo Preto, 10. Droz. Ginebra 1966, 129-155 orrialdeetan.
- 23.- Palop, P. Epistemología genética y Filosofía. Barcelona. Ariel 1981, V. garren atalean.
- 24.- Linaza, Josetxu eta beste batzuek, "Lenguaje, comunicación y comprensión" Infancia y aprendizaje. La adquisición del lenguaje. Madrid. Pablo del Río 1981, 195-197 orrialdeetan.
- 25.- Vygostky, L.S. Pensamiento y lenguaje. Buenos Aires. Lautauko 64
- 26.- Foucault, M Arqueología del saber Madrid, S.XXI, 1979
- 27.- Lorman, J. y Escuela de Tartu, Semiótica de la cultura. Madrid Cátedra 1979
- 28.- Interesanteagoetakoak Jakin aldizkariaren eskutik ditugu hemen,

1981-eko uztail-abenduan "Elebitasunaren auzta ikastoletan" eta 1982-eko urtarrik-martxoan "Euskararen normalizazioa".

- 29.- Ikus 14. oharra.